

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZA BALIABIDEEN SAILA

2018-2019ko EPEko epaimahaietako kideak aldatzea

Giza Baliabideen zinegotziak 2021eko otsailaren 5ean emandako ebazpena tarteko, 2018-2019ko Enplegu publikoaren eskaintza, EPE, deialdiko epaimahaietako kideak izendatzea eta ALHAOn argitaratzeko agintzea erabaki zen, besteak beste.

Antolakuntza arazoaiak direla eta, epaimahaietako hainbat kideren izendapena aldatu behar da, eta berriak izendatu; izendapen-aldaketa hauek egin behar dira:

- Arrate Churruca Gárate hainbat epaimahaitako ordezeko lehendakari izendatzea: O (lanbideak) I (ikuskaritza) T (teknikariak) eta M (musika).

- T (teknikoak) epaimahaiko idazkari titular gisa duen izendapena bukatzea.

- Jessica Bittman Gros idazkari titular izendatzea.

Beraz, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak –abenduarien 16ko 57/2003 Legeak aldatua– 127. artikuluan aitortutako eskumenak direla medio, eta alkateak 2016ko maiatzaren 24an Funtzio Publikoaren Arloko zinegotziaren gain utzitako aginpidea baliaturik, hauxe ebatzi dut:

1. Adierazitako pertsonak izendatzea, deialdi honetako epaimahaietako kide izateko.
2. Ebazpen hau Udalaren iragarki taulan, webgunean eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.
3. Ebazpen honen kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auziatarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko irailaren 27an

Gasteizko Udaleko Giza Baliabideen zinegotzia
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE